

**HERRI ADMINISTRAZIO ETA
JUSTIZIA SAILA***Araubide Juridikoaren Sailburuordetza
Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza***DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA***Viceconsejería de Régimen Jurídico
Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo*

LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, ITZULPEN MEMORIEN BANKU PUBLIKOA (IMBP) ESKUALDATZEKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN EGITASMOARI BURUZKOA

2015/073 LT

I. AURREKARIAK

Goiburuan adierazitako hitzarmenaren egitasmoari buruzko nahitaezko legezkotasun-txostena eskatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko 6.1.h) artikulua eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuko 13.1.c) artikulua, hurrenez hurren, Herri Administrazio eta Justizia Sailari eta Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari ematen dizkieten eskumenen arabera eta Jaurtaritzaren Kontseiluak 1995eko ekainaren 13ko bilkuran hartutako Erabakiaren lehenengo idatz-zatiak ezarritakoarekin bat etorri ematen da txosten hau.

II. EGITASMOAREN HELBURUA

Lankidetzaz hitzarmen honen xedea da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPSk) garatutako Itzulpen Memorien Banku Publikoa (IMBP) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundera (IVAPera) eskualdatzea, aurrerantzean erakunde horrek kudea dezan.



Egitasmoaren azalpenean adierazten denez IMBParen proiektua garatzeko erabakia, ardura eta finantzaketa HPSk, bere egitura dekretuari men eginez, hartu bazituen ere, tresna horren funtzionamenduaren kokapen naturala IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO) da, IVAPen eta IZOren egitura dekretuari begiraturaz gero.

Hori horrela, HPSk aipaturiko eskualdatzea egingo du eta IVAPen esku, IZOren eskutan zehazki, utziko du IMBP, erakunde honek kudeatu dezan aurrerantzean.

III. EGITASMOAREN LEGEZKOTASUN-KONTROLA

Lehenik eta behin esan behar dugu hitzarmen honen edukia bat datorrela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako baldintzekin, eta, Lege honen 6.2 artikulua aipatzen dituen zehaztapenei dagokionez, hitzarmenak biltzen dituela behar bezala aplikatzeko behar diren zehaztapen guztiak.

Hain zuzen ere, honako hauek biltzen ditu: hitzarmena sinatzen duten aldeak, zioen azalpena, xedea (lehenengo klausula), alde bakoitzak hartzen dituen konpromisoak (bigarren eta hirugarren klausulak), lankidetzeta-hitzarmenaren diru ekarpena (laugarren klausula), indarraldia (bosgarren klausula) eta lankidetzeta-hitzarmenaren jarraipena (seigarren klausula).

Egitasmoaren izaerari juridikoari dagokionez, elkarlan hau lankidetzeta-hitzarmen baten bidez, eta ez kontratu baten bidez, bideratzea zuzena dela uste dugu. Hitzarmenean HPSk IVAPi egin beharreko diru-ekarpen batzuk aurrakusten badira ere (IVAPek Bankua martxan jartzeko hasierako lan gehigarriak ordaintzeko), interes publikoaren onurerako eta helburu amankomunak lortzeko elkarlanean aritzea da funtsezko xedea egitasmo honetan.

Horren arira esan behar da hirugarren klausula zuzendu egin behar dela eta kontratuari egiten zaion aipamena aldatu, HPSk eta IVAPek adostu behar dutena hitzarmena bait da eta ez kontratu bat.

IV. ONDORIOA

Aipatutako oharrekin, hitzarmen egitasmoak legezkotasuna betetzen du.

Hauxe da nire txostena, eta zuzenbide-oinarri sendoagoak izan ditzakeen beste edozein txostenen mende jartzen dut.